

## Genozidioaren inguruko gogoetak. Gerra Zibilaren eta Diktadura frankistaren garaian.



Egilea: Izaskun Colio Begue

2017-2018 ikasturtea

Tutorea: Susana Serrano Abad

Saila: Historia Garaikidea

## **LABURPENA**

Gerra Zibila eta Frankismoa garai ilunak izan dira Espainiako historian. Lan honetan zehar, garai horiei buruzko sortutako korrante historiografiakoak aztertuko dira, bertan memoria, iraganaren ezagutza eta salaketa helburu nagusia delarik. Aztertutako korrante eta egile ezberdinen argudioak, aditzera emango dute, Espainian 1939-1975. urte bitartean, genozidioaren ezaugarriak bete zirela azpimarratzen dute, hau, Frankismoko eta Gerra Zibilean erabilitako metodoen bitartez egin eta bermatu zirelarik. Lan honetan zehar, historiagile moduan, argudio eta korrante historiografiko horiek aztertu eta interpretatuko dira.

Azken hamarkadetan zehar, ikerketa ugari sortu izan dira, batzuk mundu akademikora bideraturik egongo direlarik, beste batzuk berriz, mundu sozialera bideratuak izan dira, bertan foruak, hitzaldiak, omenaldiak eta ikus-entzunezkoa materiala nagusitu egin direlarik. Guzti honek aditzera emango du gaur egongo gizartearen eta mundua akademikoaren premia eta jakin nahia garai horiekiko.

Lanaren hasieran, Espainian Gerra Zibil eta Frankismoan zehar sortutako historiografia korranteak aztertuko dira, gaiaren nondik norakoak ulertzeko eta egoeran kokatzeko. Gero, genozidio kontzeptu beraren lanketa adieraziko da, modu honetan gaizki ulertuak ekiditeko eta irakurlea kontzeptuaren garrantziaz jabetzeko. Amaierako zatian, genozidio eta historiografiaren arteko lotura emango da, egile ezberdinen interpretazio ezberdinak plazaratuz, hauekin batera, ondorio eta gogoeta propioak azalduko direlarik. Lanean zehar, gaur egun dagoen eztabaida landu eta azaltzea izango da, hau da, eztabaida horren nondik norakoak analizatuz.

Adierazi daiteke, Espainiako Gerra Zibila eta Frankismoa gaur egungo gizartean min handia sortzen duen gaia dela. Historiagile moduan, interpretazioa burutzeko beharra ikuste dut, aldi berean, gizarteak eskatzen duen zehaztasun zientifikoaren beharrari bidea irekiz.

Portadako argazkia: <http://www.publico.es/politica/amnistia-internacional-querella-mexico-crmenes.html>

## **AURKIBIDEA**

<b>Sarrera .....</b>	<b>3</b>
<b>1. Historiografia eta gizarteari begira.....</b>	<b>5</b>
1.1. Azken hamarkadetan argitaratutako ikerketak.....	5
1.2. Gizarteari begira.....	10
<b>2. Genozidio kontzeptuaren sorrera eta bilakaera .....</b>	<b>13</b>
2.1. Definizioa eta epistemologia.....	13
2.2. Genozidio faseak eta motak .....	15
2.3. Genozidioa ezaugarritzen duten beste faktore batzuk.....	15
2.4. Genozidiorako erabilitako teknikak .....	16
2.5. 1948.urteko Hitzarmena eta talde politikoen auzia.....	17
<b>3. Interpretatzeko beharra.....</b>	<b>19</b>
3.1. Genozidioaren inguruko interpretazioetarako hurbilketa.....	19
3.2. Genozidioaren aurka erabili ohi diren argudioak.....	23
<b>4. Ondorioak eta gogoetak .....</b>	<b>25</b>
<b>Bibliografia eta webgrafia.....</b>	<b>27</b>

## Sarrera

Genozidioaren kontzeptua nazioarteko historia garaikidean ikertu eta aztertu den gaia izan da (mundu gerretan, kolonizazio eta deskolonizazio prozesuetan, Jugoslaviako integrazioan, etab). Hala ere, lan honetan zehar Espainiako gune geografikoari aplikatuko zaio, berebiziko eta interes handiko analisiaren xedea izan da, eta izaten jarraitzen du, aipatutako herrialde honetan. Izan ere, autore ezberdinen azterlanak eta hauen argudioak aztertu ditut, modu honetan, Espainiako Gerra Zibilean eta Frankismoan zehar ekintza genozidak eman ahal ziren argitzeko asmoz.

Azken urteetan ikerketa ugari buru izan dira, bertan iraganarekin bat egiteko nahi handia egonik. Azpimarratu beharra dagoena zera da, lan honetan ez da genozidioaren kasua Espainian eman zen ahal ez zehaztea, azken urteetako argitaratutako lanen bidez zauri honi, argi izpi batzuk botatzea baizik.

Bai historiografian bai gizartean gaur egun berebiziko interesa pizten duen gaia da, izan ere, idazteko, hitz egiteko, jakiteko, salatzeke eta memoria gailentzeko nahia sortu egin da. Askotan, horrelako ekintzak beste lurralde urrunetan eman zirela pentsa dezakegu, baina gure etxe propioan ere eman zirela hausnartu beharra dugu.

Erreferentzia erabilitako autore gehienak Gerra Zibileko eta Frankismoko gizarteak bizi behar izan zituen sarraskiak eta beldurrak azpimarratzen dituzte. Historialariek gertakarien interpretazioa burutzea dagokionez gero, gertatutako sarraskiak, aplikatutako metodoak, ezarritako legeak ... etab, nola interpretatzen dituzten aztertuko dugu lan honetan.

Premisa honetatik abiatzen bagara, historiografiari begira inposatzen da, argitaratutako ikerketan eta lanetan historialariek, Gerra Zibilaz eta Diktadura frankistaz, zein interpretazio egin duten ezagutzeko. Plazaratutako lan guztiak ezin dira aztertu, beraz lagin aipagarri batean oinarrituko naiz helburu nagusi horrekin. Baina, historiografia haratago doa, Gerra Zibilak eta Diktadura frankistak izandako errepresioaren biktimak zeintzuk ziren nabarmentzen du, eta modu honetan garaiko egoera soziala ulertuz. Aldi berean, hau aurrera atera ahal izateko eta hedatzeko erabilitako instrumentu zein elementuak ere aztertzen dira, errepresioaren mugak zeintzuk diren adieraziz. Lan honetan kontsultatutako liburu guztiek helburu bera dutela

ohartuko gara, iraganaren ezagutza, salaketa eta memoria historikoaren beharra azalduko delarik.

Lanaren egiturari dagokionez, argitaratutako historiografiari begirada lehenengo atala izango da, bigarrena genozidioaren kontzeptuaren sorrera eta bilakaera, zertaz hitz egiten dugun jakiteko, genozidioz hitz egiten dugunean. Atal hau berebiziko garrantzia edukiko du, genozidioa kontzeptua ongi ulertu eta erabili behar da, izan ere, konnotazio txarreko eta karga handia duen hitza baita. Beraz, beharrezkoa iruditu zait hitza ongi azaltzea, horrela inolako gaizki-ulerturik ez egoteko.

Azkenik, ondorio eta gogoetara iritzi aurretik, gertatutakoa interpretatzeko beharra azalduko da. Bertan, genozidioaren aldeko historiografia korrante eta autore horien argudioak adieraziko dira, hau Espainiako eta Euskal Herriko kasuari erreferentzia egiten diotelarik.

## 1. Historiografia eta gizarteari begira

### 1.1. Azken hamarkadetan argitaratutako ikerketak

Azken hamarkadetan argitaratutako ikerketak asko izango dira, orain posiblea izango da, urteak pasa egin direlako. Urte askotan zehar, espainiarrak isiltasunean bizi izan dira, belaunaldiak igaroz. Gaur egun, Gerra Zibilari eta Frankismoaren inguruko lanak ugariak izango dira, hauek bi bide hartuko dituztelarik, alde batetik, batzuk mundu akademikora eta ikerkuntzara bideratuko dira, besteak berriz, gizartearentzat zuzenduko dira. Irakurle ezberdinak izan arren, biek jomuga bera izango dute, hau da, Gerra Zibilean eta Frankismoan emandako errepresioa eta bortizkeria argitaraztea, modu honetan salaketa, iraganaren berreskurapena eta memoria gailenduz.

Belaunaldietan isiltasunaren nagusitasuna adierazten duen lan argi bat, *Represión Franquista en el Frente Norte* da, liburu honetako koordinatzaileak, Joaquín Rodero, Juan Moreno eta Jesús Castrillo dira. Bertan, egileen arabera, gerra zibil bat, herri bati gertatu daitekeen gauzarik okerrenea dela plazaratzen dute, ez da erraz gainditzen den zerbait, eta esan ohi da, hiru generazioen beharra dagoela iraganari objektibitatearekin begiratu ahal izateko. Lehengo generazioak, gerran parte hartu zutenak dira, askotan, gaur egun hilda daudenak; bigarren generazioa, gerraostearekin eta Frankismoarekin jaio egin zirenak, ez zuten epaitzeko elementurik izan, eta hirugarren generazioa, gazteena, demokrazian jadanik jaiotakoak, berain herrialdeko iraganeko historiaren zati beltz bat estalgabetu dutenak, zeinak orain arte ez zegoen inor nahasteko prest (Rodero, Moreno eta Castrillo (eds), 2008: 9.orr).

Honekin adierazi nahi dutena zera izango da, belaunaldi askotan zehar, hitz egiteko beldurrak Espainiako gizarteko ezaugarri nagusiena izan dela, honek garaiko gizarteak bizi izan zuenaren adierazlea dela azpimarratzen dute egileek. Hala ere, azken urteotan, hirugarren belaunaldi horri esker, gaur egungo ikerketen bultzatzaileak izango direnak, garaiko errepresio egoeraren nondik norakoak azaltzeko kemena sortu egingo dute, egia, helburu nagusi eta bakarra izanik.

Zertaz ikertu, aztertu eta sakondu nahi izan dute? Lehenik eta behin, errepresio frankista, gizarteko arlo guztietan murgildu egin zen, inolako hutsunerik utzi gabe. Frankismoa errepresioa bermatu eta gauzatzeko instrumentu eta elementu ezberdinez baliatu egin zen, hauek kolektibo sozial ezberdinetan ondorioak ekarri zituelarik.

*Represión Franquista en el Frente Norte*, liburuak ongi islatzen duen moduan, egia da, ez zela sarraski esparru edo gas kamarik egon Espainian, baina, Mussolini- ren Italian ezta, eta inork ez du zalantzan jartzen haren diktadore kondizioa. Bai, ordea, kontzentrazio esparruak, paseoak, fusilamenduak, sumario exekuzioak, diskriminazioak eta guda kontseiluak egon ziren. Garaituen gaineko jazarpen sistematikoak eman ziren, espetxeratze masiboak, depurazio edo garbiketa selektiboen bidez, hala nola; irakasleekiko, funtzionarioekiko, katedratikoeekiko, intelektualekiko, epaileekiko eta bazterketa sozialak eman ziren, izan ere, jazarpenak ez zen soilik aukera politiko konprometitua zuenarentzat izaten, baizik eta, haren inguru familiar eta sozialarentzat ere (Rodero, Moreno eta Castrillo (eds), 2008: 11.orr).

Garaiko emakumeen egoera landu egiten duen egilea, Mary Nash, dugu, emakumeen historian aditua. *Represión, resistencia y memoria: las mujeres bajo la dictadura franquista* liburuan, Nash-ek garaiko emakumeek jasandako bazterketaz gain, sufritutako errepresioaz ere mintzatuko da. Errepresio makinaren pieza erabakigarri bat, emakumeen eginkizunaren berrinterpretapena izan zen, izan zen, bai botere diziplinarioarekin baita gizarte patriarkal baten inposaketarekin, izan ere, erregimen katoliko nazionala zen. Legeen, arauen, hezkuntza eredu eta sekzio femeninoen bitartez, erregimen frankistak emakumearen arketipo zaharkitua eta otzana bultzatu egin zuen. Indar frankistek, orden patriarkatu gupidagabe bat bultzatu egin zuten, honek emakumearen menpekotasuna erregulatzen zuelarik. Menpeko gizakia bihurturik, inolako eskubiderik gabe, domestikotasunera beharturik, espainiar emakumeak gizonen tutoretzapekoak bihurtu egin ziren (Nash, 2015:191-192. orr).

Emakume asko, modu bortitz batean erreprimituak, espetxeratuak eta exekutatuak izan ziren erregimen diktatorialaren eta gerra zibilaren aurka izandako jarreragatik. Espetxeetan, ehundaka militante, ama eta preso elkartu egin ziren, baldintza negargarrietan. Emakumeek borroka eta erresistentzia egin zuten bai adierazle politikoetan zein sozialetan, era berean, egunerokotasunari errebeldia eta biziraupen estrategiei erresistentzia erakutsiz (Nahs , 2015: 191-192. orr).

Paul Preston, bere lanean, *Holocausto Español*, emakumeak jasandako menpekotasunaz mintzatuko da ere. Preston-en arabera, hilketak, torturak eta bortxakeriak ezker aldeko emakumeek gazan zituzten zigorrak izan ziren, hauek errepublikar garaian, genero askatasunaren bultzatzaileak izan zirelarik. Espetxeetan

biziraun zutenak ondorio fisiko zein mental garrantzitsuak jasan zuten. Beste milaka emakume, bortxakeriak eta beste abusu sexualetara menperatuak izan ziren, hala nola, ilea larru-arras moztu zioten edota haien beharrak besteen haurrean egitera behartzen zituzten. Errepublikar emakumeen gehiengoa, arazo psikologiko eta ekonomiko garrantzitsuak ere pairatu behar izan zituzten (Preston, 2011: 41.orr).

Armiarma-sare bat bezala, eguneroko bizitzako arlo guztietara hedatu zen honen haria eta sektore ahulenak ere, harrapatu zituen; emakumeak, espetxeratuak eta zigortuak, ama, emazte edo militar edo soldadu errepublikar baten alaba izateagatik, haurrek ere, berdina jasan zuten, hauek, haien gurasoengandik banandu zituzten, orden erlijiosoan esku geratuz, umeak Espainia nazionalera bihurtzeko ahalegin sutsuak egiten zituztelarik. Beste batzuk, jazartuak izaten ziren haren hautaketa sexualagatik. Garbiketa prozesu handi eman zen bai ideologian, politikan eta gizartean, erregimena bera eta bere kideek moralki justifikaturik eta modu zabal batean barreiatuak zeuden, aldi berean, ez ziren ahaztu zentzagarri ekonomikoaz, hala nola, interesatutako salaketak, alderdi politikoetako ondareen desjabetzea eta hirugarren batzuentzat egokia zen depurazio profesionala (Rodero, Moreno eta Castrillo (eds), 2008: 11.orr).

Guzti honek, historiografia fidagarriak frogaturik, bertan gertatutakoari garrantzia errekonozituz, inolako beldurrik gabe. Javier Rodriguez, sakondu egiten du, garaiko lege berezi eta apartekoetan, zeinak promulgatu ziren zehazki aplikatzeko. Honen adibidea, 1939ko otsailaren 9an, sortu egin zen erantzukizun politikoen legea, 1940ko matxoaren 1ean, Masoneriako errepresioaren legea eta komunismoarena edota 1941eko martxoaren 29an estatuko segurtasunaren legea. Geroago 1947ko apirilaren 18an lege dekretua sortu zuten, bertan bidelapurreria eta terrorismo delituak definitu ziren, 1941eko estatuko segurtasun legea indargabetzen zen bitartean, modu honetan, justizia militarren kompetentzia berrezarritik (Rodero, Moreno eta Castrillo (eds), 2008: 12.orr).

Eragina izan zuen beste kolektibo sozial bat, administrazio publikoan lan egiten zuten langileria jasan zuten. Honen adierazle egokia, *La depuración del Funcionarios bajo la Dictadura Franquista (1936-1975)* dugu, egilea Josefina Cuesta delarik. Cuesta-k, bat egingo du J. Claret hitzekin, depurazioa “*El atroz desmoche*”-a izan zen. Cuestaren arabera, depurazioa “min kategorian” sartu beharreko ekintza izan behar da, izan ere, milioika pertsonen bizitza indibiduala zein familiarra baldintzatu zuen, errepresio eta erbestealdiarekin batera, Diktadura frankistako ondorio latz eta luzeenetariko osatzen



duelarik. Cuesta-k bere liburuan, depurazioaren definizio zehatza plazaratzen du. Prebentiboa eta zigor estrategia burutzen zuen prozesua dela adierazi egien du, bertan, beldurra, funtzionarioen selekzio pertsonala eta eraiki nahi zen gizartearentzako kaltegarriak ziren elementuetan suntsipenean oinarritzen zen, hau burutzeko, izu eta umilazio instrumentuak erabiliz (Cuesta, 2009: 15.orr).

Cuesta-k aditzera ematen du, prozesu honek, erregimenaren izaera begi bistakoa zein zen adierazten zuela, bertan erabilitako metodoengatik eta gizarte berri horren eraikuntzaren kontribuzioagatik. Depurazioaren ezaugarri nagusiena, iraupena izango da, hots, diktaduran hasi zena eta 1976-1977.urte bitarteko indultu eta amnistia legeekin amaitu egin zena (Cuesta, 2009: 15.orr).

Aditzera emango du, isiltasun forma bat izan zela depurazioa, zeinetan, pertsonaren lanbide harremana, soziala, bizitza familiarra zein bizitzako baliabideak zapuzten zituen, horrela, sozietate zibilaren antolaketa eta funtzionamendua ahulduz eta estatuaren zerbitzariak ezarriz, modu honetan beldurraren kultura ezarriz (Cuesta, 2009: 17.orr).

Depurazioaren nondik norakoak aztertzen dituen beste egile bat, Aritz Ipiña dugu, *La depuración y represión Franquista de las empladas y empleados del Ayuntamiento de Bilbao (1936-1976)*, liburuan. Bertan Ipiña-k, frankismoaren garaipenaren ondorioz, atxilotetak eta fusilamenduak milaka pertsoneri eragin zela adieraziko du eta instituzio demokratikoetako funtzionarioen depurazioak garaiko ohiko praktika izatera pasa egin zela azpimarratu egingo du (Ipiña, 2016: 10.orr).

Udaletxetan, soilik, frankistak egon ahal ziren, hau da, erregimenari, altxamendua gauzatu zuten militarrei eta Francisco Franco-ri, “Caudillo” berria eta “estatu berriko” buruari, leial sutsuak zirenak jardun ahal zuten. Alkateak, gobernatar ordezkari soilak ziren. Ekintza hauek, eragina izan zuten, adibidez, Bilbo-ko udaletxeko langileriarengan, hala nola, funtzionarioengan, aldi baterako langileengan, pentsionistengan edota bekadunengan. Guzti hauek, inolako salbuespenik gabe aztertuak izan ziren, bai hauen jarrera sozial eta moralarengatik ere (Ipiña, 2016: 10.orr).

Autoritate frankistek egindako depurazioak, diktaduraren boterearen jarraipena eta garaipena ulertzeko puntu garrantzitsuenetako bat izan zen, izan ere, beste gauza askoren artean, hasierako momentutik, aurkaritza politikoa adierazten zuen oro ezabatu

zuten administrazio publikorik, modu honetan haien administrazio postulatuak sortuz (Ipiña, 2016: 11.orr).

Zinema ere, oso baliagarria izan zen, hots, garaiko zinemak gizartearentzat egunerokotasunetik urruntzeko elementua bihurtu egin zen. A. Sanchez-ek azaltzen du bere lanean, zinemak garai horietan izandako eragin soziala (Sanchez, 2015: 270.orr).

1939ko garaipen frankistak zinemaren munduko profesional askoren erbesteratzea eta errepresioa ere suposatu zuen, hala nola, Luis Buñuel, Carlos Velo, Luis Alcoriza, Francisco Elias, Julio Alejandro.. etab. Espainian gelditu egin zirenak burokrazia eta ministerioko dependentzien menpe geratu behar izan zuten (Sanchez, 2015: 270.orr).

1939 eta 1951. urte bitartean, zineman, ikuskizun sindikatu nazionalaz gain, gobernazioa, komertzio eta industria zaila eta hezkuntza eta mugimendu nazionalen sindikatuak ere, esku hartu zuten bertan. Aldi berean, zentsura ikaragarria izan zen, politiko liberalen izena izendatzea debekaturik zegoen, baita iraultzaile hitzaren erabilpena ere. Azpimarratu beharra dago, zinema, errepresio frankistan izugarritzko papera eduki izan zuela, izan ere, ikusleen egunerokotasun gogorra ahazteko instrumentu baliagarria izan zen (Sanchez, 2015: 270.orr).

Historiografiaren atal honekin amaitzeko, orain arte jorratu duguna helburu zehatz eta argi bat edukiko du, iraganaren ezagutza, salaketa eta memoria. Erlazio honetan, bat egiten dute autore guztiek, memoriaren garrantzia azpimarratzen dutelarik.

Rodero, Moreno eta Castrillo-ren liburuan, memoriaren ospea nabarmentzen dute, izan ere, hau oso hautakorra izango da eta guretzat atsegina ez dena, ezabatzen saiatzen dela azpimarratzen dutelarik. Aldi berean ere, moldakorra izango da, desatsegina saihesten saiatzen da, aurrerantz begiratzuz eta iraganeko gertakizunekiko estalki bat ezarriz. Horrela azaldu egin du, egin berriko memoria historikoaren onarpenak, zeinak ez du soilik gure iragan hurbileko zauri odoltsuenak ireki baizik eta, hauen berreskurapenaren beharra zalantzan jarri du, hauen existentzia propioa berriz ez (Rodero, Moreno eta Castrillo (eds), 2008: 9.orr).

Amaitzeko memoriaren funtzio onartu arren, historiografia korrante batek Gerra Zibilean eta Diktadura frankistan gertatutakoa interpretatzeko beharra azpimarratu du. A. Miguez, F. Moreno eta X. Irujo besteen artean, genozidioaren ikuspuntua interpretatzea

proposatzen dute, garai historiko horiek kontuan hartuz eta haien lanen ardatz nagusia izanik.

## 1.2. Gizarteari begira

F. Moreno katedraduna, bere aldetik, gizarteari begiratzeaz arduratu da, haren analisiari jarraituko diogu. Moreno-ren arabera, genozidio frankistaren inguruan, ahots gutxi entzuten da, ekintzen inguruko ikerketa eta egia eskatuz. 2005eko otsailaren 26an, Baltasar Garzon epailea, onartzen zuen Frankismoan zehar gizateriaren aurkako krimenak egon zirela, zehazki, Diktadura frankistaren hasierako urteetan eta ondorioz, desiragarria zela egiaaren batzorde bat martxan jartzea. Izan ere, ireki egin ahal ziren zauri bakarrak, borroeroen kontzientzia zirela azpimarratzen zuen. Memoria Historikoaren legea, 2007ko amaierakoa, eskaera sozialaren irudikapena izango da, historia, egia eta duintasuna eskatuz (Moreno, 2008: 3-4.orr).

Moreno-k aipatzen du ikerketek aurre egin behar duten gezurkeri bati, ekaineko 18ko kolpearen justifikazioari egiten dio erreferentzia. Kolpista unibertsal guztiek, Francotik, Tejeroraino baita Pinochet-eraino, emandako golpeak beti, aberriaren salbazioa bezala aurkeztu egin dute edota, zegoen anabasari jarritako konponbidea edota komunismotik egindako askapena direla azpimarratzen dutela dio. Gaur egun justifikazio hauek sinestea giza arrazionaltasunari iraina botatzea bezala izango litzake (Moreno, 2008: 7.orr).

Memoriaren aldeko foruen federazio estatalak, ugaritu eta datuak zehaztu egin dituzte, 2007ko amaieran eta 2008ko hasieran. Moreno-ren arabera, ahaztuaren politikak Espainian planteatu diren aberrazio moral eta zientifiko handiena izan da, gizateriaren zorigaitz marko honetan, genozidio eta gizateriaren aurkako krimenetan, 1936ko kolpista espainiarren esku (Moreno, 2008: 12.orr).

Egileak, azpimarratu egingo du, Nizkor-en taldea, giza eskubideen aldekoa, 2004ko apirilean gobernuari eta jeneral fiskaltzari “*la cuestión de impunidad y los crímenes franquistas*” izeneko dokumentu bat iritsi harazi zion. Nizkor-en taldean, 2006ko uztailean, Frankismoko krimenak Nuremberg-eko tribunalarekin elkarlotu zituen baita gizateriaren aurkako beste krimen internazionalak ere elkarlotu zituen. 2006an, Amnistia Internazionalak informe bat sortu zuen, bertan, errepresioaren inguruko informe militarrek eskuratzeko zailtasunak azpimarratzen zituen, familiak ezta ikertzaileak ez

zuten erantzun arrakastatsurik lortzen. Gai honetan, memoriaren elkarteek egoera legislatzeko eskakizunak egin dituzte eta artxibo horiek, historia artxibategi nazionalera igarotzeko eskakizunak egin dituzte, hau da, kudeaketa zibila emanaz, ez militarra (Moreno, 2008: 13.orr).

2006ko martxoan, Europako Kontseiluak, erregimen frankista kondenatu zuen adierazten du Moreno-k. Data berean, Amnistia Internacional erakundeak, isiltasunari eta injustiziarri aurre egiteko adierazpena argitaratuko zuen. 2006ko ekainean, Europar Batasunak Frankismoa kondenatzeko beste proposamen bat bultzatu zuen (Moreno, 2008: 13.orr).

Espanian, frankisten krimenen zigorgabetasunaren kontua, jadanik, sententzia sendoa duen kontua da, 1977ko Amnistia legearekin ebatzia egingo da, puntu eta amaiera jartzen duen legea izango da, modu honetan, Frankismoko borroroak ukiezin moduan utziz. Uste ohi da, horrelako ankerkeria ez dela munduko beste leku batean eman, hala ere, gure herrialdeak akzio judizialak burutzen ditu gizateriaren aurkako munduko hiltzaileen aurka. Modu honetan, gure epaileek, Frankismoko garaile eta garaituen edozein eskakizunari uko egiten diotelarik. Espainian, epaileek, frankisten aldeko autoak zigorgabetasunaren aldeko sententzia azalduko dute eta genozidioko biktimen aurka azalduko dira. Frankismoaren indar iraunleek, aspaldiko jarrera burugorretan dihardute (Moreno, 2008: 14.orr).

Moreno-k Jose Antonio Martin Pallin-en artikulua azpimarratzen du. Pallin juristak, "*Cautivos y Desarmados*" artikuluan, gauzak bere izenaz deitzeko kemena izan duela adierazten du, topiko eta falaziei aurre egin diola azpimarratuz. Errepresio frankista "amaierako konponbide selektibo moduan" izendatu du, nazismoaren estiloaren modura, erruki eta humanitate falta kritikatu du garaituen gainean, sufrimenduaren laztunak neurtuko ditu eta errepublikako baloreen harrotasunaren berreskurapenaren defentsaz hitz egingo du. Baieztatuko du, inolako disimulurik gabe, gerra kontseiluak baliogabekoak izango direla eskubide osoz eta tribunalak ilegalak direla. Europako parlamentuek Espainiako gobernuari, 2006eko uztailaren 18a, Francoren erregimenaren aurkako eguna izan dadila eskatu zion (Moreno, 2008: 15.orr).

Gaur egungo Espainian, memoria historikoaren aldeko mugimendu aldarrikatzaileek, Espainiako mapan, osasun egokiaz gozatzen du. Sentsibilitate honen aurrean, azken urteotan azaltzen ari diren ikus-entzunezko elementuak oso garrantzitsuak

izango dira, dokumental ugari argitaratuz, estatuko memoria demokratikoa berreraikitzeko lagungarria izango dena (Moreno, 2008: 15.orr), adibidez, *Los Niños perdidos del Franquismo* (Montse Armengou, 2002) edo *La Guerrilla de la Memoria* (Javier Corcuera, 2001).

Isiltasunaren, ahanzturaren eta memoria historikoaren biktimez hitz egiterakoan, azkeneko urteetan Reyes Mate filosofoak hausnarketa interesgarriak eskaini egin ditu. Egiaztatu egiten du, Espainian memoriaren aurkako konspirazioak izan direla, hainbat faktoreek eraginda: hitz egiteko beldurragatik, entzuteko beldurragatik, Trantsizioan egindako ahaztunaren itunagatik eta aurrerabidearen falaziagatik. Espainian boterea, memoria administratzen edo neurtzen saiatu egin da, baina oinarri sozialak ezagutarazi egin du eta estatu osoan zehar, onddoak izango balira bezala, ehunka elkarte eta foro sortu egin dira memoriaren inguruan. Memoriaren aurkako konspirazioak egon arren, ikerkuntzak bertan dihardute, liburuak argitaratzen dira, dokumentalak egiten dira eta memoriari omenaldiak egiten dira, bertan diraelako (Moreno, 2008: 19.orr).

Horregatik, soilik memoriaren ariketa, biktimei justizia egitean datza. Memoria demandatu egingo duen justizia, hirukoitza izango da, alde batetik, biktimen errehabilitazioa soziala, biktimen errehabilitazioa eta aipamen historiako eta biktimen ordaintze ekonomikoa, hau da, justizia soziala, historikoa eta ekonomikoa. Memoriari uko egitea edota memoriaren aurka aritzeak edo komunikabideetan boikoteatzea, borroaren lagun izatea da. Hiritar batek edo historiagile batek, oso argi izan behar du noren oinordekoa izango den, biktimena edo borroarena. Espainian, frankistek egindako sarraskia aztertzerako orduan, hitz egin behar da, zalantzarik gabe, genozidioaz, holokaustoaz eta gizateriaren aurkako krimenaz (Moreno, 2008: 21.orr).

## 2. Genozidio kontzeptuaren sorrera eta bilakaera

### 2.1. Definizioa eta epistemologia

Genozidio kontzeptua, balio handia eta askotan gaizki erabilitako kontzeptua da, izan ere, historiako gertakizun tragikoei erreferentzia egiteko erabili ohi da. Askotan, beste hitz batzuekin nahas daiteke, hala nola, masakrea edo gerra erailketa (Perez, 2016: 11.orr).

Genozidioaren krimena, duela 50 urtetik leku garrantzitsua eta iraunkorra hartzen hasi da sistema internazionalan, izan ere, segurtasun juridikoa eta egonkortasuna falta dela eta. Raphael Lemkin-en helburua, kontzeptu honen hedapena izango da, delitu hau barneratzen dituen ekintzak ekiditeko, gainera, zuzenbide internazionalan oihartzuna izan du (Villavicencio, 2006: 104.orr).

Onartua izan da, ekintza genozida bat eman ahal izateko ez dela pertsonarik hil beharrik, izan ere, muturreko ekintzak ere genozidatzat hartu daitezke, hala nola, talde bateko kideen gainean egindako kalte fisikoa edo mentala ere (Villavicencio, 2006: 46.orr).

Lemkin-en genozidio kontzeptuaren erabilera aurretik, ekintza honek “despopulatze” moduan izendatuak eta aurretik erabilia izan zen, zehazki Grachus Babeuf-ek Frantziar iraultzaren garaian, herriaren eskubidearen defendatzailea izan zen. Haren obran “*Du Syhsteme de depopulation ou la vie et les crimes de Carriet-en*” jadanik azaltze du, garaian gauzatutako basakerien inguruko teoriak azaltzen direlarik (Irujo, 2006b: 23.orr).

Kontzeptuaren sorrera XX. mendean eman zen arren, horrek ez du esan nahi iraganean genozidiorik ez egon izana, izan ere, hauek definitzeko edo aditzera eramateko kontzepturik ez zen existitzen. Genozidio hitzaren sortzailean Rafael Lemkin dugu, jatorri judutarra zuen polakoa, 1944. urtean argitaratutako liburu batean, *Axis Rule in Occupied Europe*, bertan, genozidioa nazio edo talde etniko baten suntsipena bezala definitzen du. Genozidioaren etimologiari dagokionez, “Genos” arraza edo tribu adierazi nahi du “Cide” berriz, hil (Perez, 2016: 12.orr).

Termino jeneraletan, Raphel Lemkin, genozidioen ikasketen aita izango da eta beste autore batzuk diotenez, Xabier Irujo eta Antonio Miguez Machado adibidez,

genozidioak ez du esan nahi nazio baten berehalako suntsipena, salbuespena, nazio bateko biztanleak modu masiboan hiltzen direnean izan ezik. Haren helburua, talde nazionalen bizitzako berezko zimentarrien suntsipena izango da hainbat ekintzen bidez, bertan antolakuntza, koordinazioa eta nahitasuna ikusgarriak direlarik. Plan honetako helburuak, taldeko instituzio politiko eta sozialen suntsipena izango litzake, hala nola, kultura, hizkuntza, sentimendu nazionalak, erlijioa eta talde honetako biziraupen ekonomikoak, aldi berean, pertsonarekiko segurtasun propioaren suntsiketa, hots, askatasuna, osasuna, duintasuna eta pertsona hauen bizitza bera ere. Lemkin-en definizioarekin bat eginez gero, estrategia edo teknika ezberdinak sortuko dira genozidioa gauzatzeko, honek zera adierazi nahi du, giza talde hauen suntsipena gauzatzeko modu ezberdinak existitzen direla, gehienetan, teknika hauek, eraso kontzentratu eta koordinatuak izango dira, talde hauek definitzen duten identitate edo nazionalitatearen aurka (Ipiña, 2016: 14-15.orr).

Genozidio ekintzetako biktimak, ez dira bakarrik gauza bat egiteagatik, baizik eta zerbait izateagatik. Biktima giza taldea izango da, komunitate bat, nazio bat, hau da, giza talde errekonozitu bat da, identifikagarria izango dena haren ezaugarri etniko, kultural, erlijioso, sozial, politiko edo ekonomikoengatik. Lemkin-en arabera, ezaugarri hauek “patroi nazional” bezala ezagunak izango dira, hots, taldeko balore unibertsalak. Genozidioak ez du esan nahi nazioko populazio zati handi baten sarraskia edo nazio bateko populazioaren gainean egindako erailketa pilaketa, baizik eta, nazio beraren suntsipena, ez bakarrik haren populazioarenganako, baizik eta, haren bizitza, egitura sozial, erakunde politiko, haren ekonomia, kultura, hizkuntza, erlijioa, musika, literaturaren ... etab, aurka ere, hau da, identitate kolektiboaren ezaugarrien aurka. Genozidioa azimiliazioa izango da, hau da, populazioaren kopuru txiki bat, populazio handiagoa duen talde sozialean integratzea (Irujo, 2016b: 23.orr).

1948. urtean “*Convención para la prevención y sanción del Genocidio*” sortu zen, giza katastrofeein aurre egiteko komunitate internazional moduan, helburua, eskubide internazionalen bortxaketa salatzea eta kondenatzea izango da, bertan genozidioa, krimen artean krimena eta giza eskubideen bortxaketa handiena bezala definitua izango da (Perez, 2016: 12.orr).

## 2.2. Genozidio faseak eta motak

Genozidioak bi fase ditu, alde batetik, jazartutako taldearen patroï nazionalaren suntsipena, bestetik, zapaltzailearen patroï nazionalaren ezaugarrien ezarpena jazartutako taldeekiko, modu honetan, talde honen garapena eta jarraipena ekidinez. Genozidio ezberdinak aurkituko ditugu, lehenik eta behin, genozidio fisikoa, hau da, erailketan, espetxeratzeetan, kontzentrazio guneetan, erbesteratzeetan eta deportazioetan oinarritzen dira, hau suntsitu nahi den taldearen kideei egiten zaie. Bigarrenik, genozidio soziala edukiko dugu, bertan patroï nazionalaren suntsipena emango da, biktima taldearen gizartearen suntsipena suposatuko du, horretarako, lege eta tribunal lokalen abolizioa emango da, eta agente genozidak jarritako lege eta tribunalaren orde. Eragile genozidak, administrazio publikoko funtzionario, bereziki epaile eta magistratu guztiak kenduko ditu, hauen orde, ejertzitoko kideak ezarriko ditu (Irujo, 2016b: 27.orr).

Amaitzeko, hirugarren genozidio mota, Genozidio kulturala da, giza talde baten oinarritzko ezaugarrien ezabaketan datza, hala nola, hurren lekualdaketa bortitza, taldeko kulturaren ordezkarien erbesteratze bortitza, hizkuntz nazionala erabiltzeko debekua, hizkuntza nazionalen argitaratutako liburuen ezabaketa, baita erlijio eta publikazio berrien argitalpena, noski, monumentu historiko eta erlijiosoen garbiketa ere. Lemkin-en arabera, kanpaina genozida bat ez da ekintza puntuala izango, baizik eta antolaturiko hainbat ekintzak, hau denboran zehar gauzatuko dena eta ondorio latzak utziko dituen denboran zehar (Irujo, 2016b: 26.orr).

## 2.3. Genozidioa ezaugarritzen duten beste faktore batzuk

Lehen aipatu ditugun, genozidioaren ezaugarrietatik at, bigarren mailako ezaugarri batzuk daudela adierazi beharra dugu, zehazki eta nagusiki, bi daude, alde batetik, arrazismoa eta bestetik, guda. Ulertu beharreko puntua zera izango da, genozidioak, ustezko menpeko talde baten gainean egindako ekintza ezberdinenen gorengo momentua da. Ekintza hauek, burutu hala izateko, lehenik eta behin ezinbestekoa da, ekintza gauzatuko dutenen kontzientzia manipulatzeko, egileek ekintza gauzatuko duten gaineko taldearekiko ikuspegia aldatzean datza, biktima taldea, haiengandik menpekoak direla, suntsipenaren edo sarraskiaren merezidun direlaren ikuspegia barneratzen dute (Perez, 2016: 18.orr).



Genozidioen gehiengoa arrazismoan oinarrituko dira. Arrazismoak sortutako deshumanizazioa ez da bat-batean ematen baizik eta prozesu luze bat da, hau taldeen elementu identifikagarriak erabiltzetik sarraskiaren praktikara doa. Deshumanizazioa zapi faseetan garatzen da. Lehenik eta behin biktimen taldea ondo definitzen da, hau genozidioaren ezaugarrietako bat izango da, hots, ezberdinak izateagatik suntsituak izan behar dira. Bigarren eta hirugarren pausoa, biktimen erregistroa eta hauen izendapena izango da, azkeneko hau aurrera eramanez ahal izateko, sinbolo fisikoak erabiliko dira, biktimak identifikatzeko erraztasunak ekarriko ditu, adibidez, Holokaustoaren garaian, David-en izarra ohiko sinboloa zen, judutarrak ezaugarritzeko. Laugarren pausoa, taldeari ondasunak kentzean datza, modu honetan inolako babes ekonomikorik gabe utziz. Bosgarren eta seigarren fasean, taldearen bazterketa eta esklusioa gauzatuko da, modu honetan, taldea erabat definiturik eta bazterturik edukita, amaierako faseari hasiera emateko balioko du, hau da, taldearekiko sarraskia (Perez, 2016: 18.orr).

Lehen aipatu dugun bezala, genozidioaren ezaugarrietako bat arrazismoa eta gerra ziren, gerrari dagokionez, genozidioaren gehiengoa gerra testuinguruan garatu eta gauzatu egiten dira, genozidioetako biktimen gehiengoa, askotan, martxan dagoen matxinada edo aberriaren aurka azaltzen direnen konplotaren parte izango direla adieraziko dute (Perez, 2016: 21.orr).

#### 2.4. Genozidiorako erabilitako teknikak

Genozidioaren praxia aurrera eramanez ahal izateko, hainbat teknika erabiliko dira, suntsipena gauzatzeko modu ezberdinak erabiliko dira, hala nola, taldeko kideen erailketa, kideen kontrako kalte fisiko edo mentala eragitea, taldearen existentziaren baldintzen suntsipen fisikoa osoa edo partziala, talde horretako hazkundera ekiditeko hartutako neurriak eta harren lekualdaketa talde batetik bestera emango dira.

Genozidioa gauzatzeko erabilitako teknika edo moduen arabera, genozidio ezberdinak daude, hala nola, genozidio fisikoa edo biologikoa. Genozidio fisikoa, taldearen erabateko suntsipen fisikoan datza, biologikoan berriz, taldearen desagertzea bilatuko du, desagertzearen ondorioz ez da oinordekotzarik egongo, hau aurrera eramanez ahal izateko, taldearen barnea, jaiotzak galarazten saiatzen dira (Perez, 2016: 15.orr).

Lemkin-ek zortzi teknika ezberdinak egin zituen genozidioa aurrera eramateko, hots, giza talde bat suntsitzeko, hau modu antolatua eta denbora laburrean egiten delarik:

genozidioa fisikoa, biologikoa, erligiosoa, soziala, morala, politikoa, ekonomikoa eta kulturala. Genozidio politikoa, historia garaikidean zehar biktima gehien sortutako estrategia izan da seguruenik. Ohiko praktika oposizio politikoaren debekua eta disoluzio izango da, hala nola, alderdiak, erakundeak edota jarraitzaile edo liderren espetxeratzea. Erakundeekin batera, gobernuko instituzioak ere ezabatuak izango dira, administrazio patrioi berri baten ezarpena ezarriko da, modu honetan, iraganeko jarrera nazionalisten edozein aztarna ahazteko eta ezabatzeko asmoz. Administrazio zentralizatu bat ezarriko da, langileak erregimenaren aldekoak izango dira, hau depurazioak egiteko hartutako lehengo neurria izango delarik (Ipiña, 2016: 15.orr).

## 2.5. 1948.urteko Hitzarmena eta talde politikoen auzia

Genozidioa delitu moduan hartzearen kontzientzia, II Mundu Gerra ostean eman zen, komunitate internazionalak, naziek egindako sarraskien gaineko kontzientzia hartu baitzuten, helburua, ekintzak berriz ez errepikatzea izango da. Genozidio hitza, uste duguna baino konplexutasun handiagoa duen kontzeptua da. Lehen aipatu dugun bezala, Raphael Lemkin jurista, kontzeptuaren sortzailea, 1933. urtean, memorandum bat prestatu egin zuen Nazioen sozietaterako, bertan, Lemkin-ek, masan egindako exekuzioak debekatzen zituen. Honen esanahia, elkarloturik dago, tribuen, familien edo arrazen existentziaren kontrako ekintza edo sarraskien aurka. Nazio Batueran asanblada orokorrean, 1946.urtean, 96 (I) ebazpena onartu egin zuen, bertan genozidioaren krimenaz hitz egiten zutelarik, bertan, talde osoen existentziaren eskubiderako ezetza esleipena ematen zen, hauen artean talde, arrazialak, erlijiosoak edo politikoak zirelarik (Eiroa, 2012: 6.orr).

Ebazpen honek, genozidio delituaren prebentzio eta zigor hitzarmenaren sorkuntza ekarri zuen, asanblada orokorrean onartu egin zena 260 A (III) ebazpenaren bitartez, 1948ko abenduaren 9an. Konbentzio hartan, honen ezaugarriak eta tipologiak ezarri eta zehaztu egin ziren, Erroma-ko estatutuan 6 artikulua moduan erantsi zena, geroago, 1998ko gorte penal internazionalaren sorrera ekarri zuena (Eiroa, 2012: 6.orr).

Hala ere, 1948ko hitzarmenak, kritikak jaso zituen bi arrazoiengandik, alde batetik, biktimen taldeaz hitz egiterakoan, hau da, taldea definitzerako orduan, talde politikoak genozidio hitzetik at egotea egotzi zitzaientzen, izan ere, hitzarmenarena arabera, bakarrik talde nazional, erlijioso, arrazial edo etnikoen aurka joan daitezke (Perez, 2016: 24.orr)

Honekin batera, talde politikoak genozidio kontzeptuaren definiziotik kanpo usteak hainbat auzi eta eztabaida ekarri zituen, izan ere, batzuk honen alde azaldu baitziren, beste batzuk berriz aurka. Azkeneko hauen justifikazioa zera izan zen, giza talde baten jazarpena eta pertsekuzioaren faktore nagusietako bat, arrazoi politiken ondorioz ematen zela egotzi egiten zuten (Perez, 2016: 24.orr).

Talde politikoak definizioaren barruan azalduko balira, estatu batzuk honen aurka azalduko lirateke, izan ere, herrialde askok, haien lurraldeetan, talde politikoen aurkako sarraskiak egin baitzituzten, horrek, herrialde horiek ikusmiran jartzea suposatuko lukeelako. Bestalde talde politikoak definizioaren barnean sartzeak, beste talde batzuen barneratzea ere suposatzen zuen genozidioaren definizioan, hala nola, ezaugarriko ekonomikoak edo lanbidekoak zituztenak. Autore askok, talde politikoen barneratzearen alde daudela adieraziko dute, haien ustez, garai bateko genozidioak arrazoi erlijiosoengandik eman ziren, garaikideak berriz, arrazoi politikoak zituztelako gauzatu zirela azpimarratzen dute (Perez, 2016: 24.orr).

Hitzarmenaren aurkako beste kritika bat zera izan zen, intentzioaren kontzeptua, bi interpretapen ezberdin dituela; alde batetik, intentzio espaziala eta bestetik intentzioa ezagutzen eta minean oinarritua. Esan daiteke, 1948. urteko hitzarmeneko idazleek edo egileek, genozidioaren delitua modu zehatz batean gauzatzea eta definitzea nahi zuten, haien interesen arabera, izan ere, ur irakinetan egongo baitziren (Perez, 2016: 28.orr).

Beste alde batetik, genozidioak talde politikoez gain, talde kulturalak eta genero (gizonezko eta emakumezkoak) ere, baztertu egiten ditu, talde politikoak definizioan sartzeak, ez luke kontzeptu beraren definizioa aldatuko (Villavicencio, 2006: 30.orr).

Hitzarmenaren 2. artikuluan, genozidiotzat hartzen da, talde batzuen aurretiaz antolaturiko suntsipena, talde hauek, elementu nazionalak, arrazialak eta erlijiosoa izateagatik izaten da gehien bat. Juristen arabera bi alderdi nagusitu behar dira genozidioaren definizioan, alde batetik, *mens rea*, hots, ekintzak intentzio batekin gauzatu direla egiaztatu behar da eta bestetik, *actus reus* elementu fisikoa. Ondorioz, honek zera esan nahi du, erantzunkizun penala, soilik mantendu daiteke *actus rea* eta *mens rea*-ren existentzia dagoenean (Perez, 2016: 4-5.orr).

### 3. Interpretatzeko beharra

Gerra Zibilari eta Francoren historiografiaren barnean ikerketa ardatz bat sortu da, lan honetan zehar adierazi dudan bezala. Zeinak garai horiek interpretatzen zituen genozidioaren ikuspuntutik. Honetarako hurbilduko naiz.

#### 3.1. Genozidioaren inguruko interpretazioetarako hurbilketa

A. Miguez, Espainiako genozidioaren ikerketaren inguruko bultzatzaile nagusienetako bat da. Haren ikerketen ondorioz, mundu akademikoko ikertzailea askok ere, batu egin dira hark plazaratutako teoriara. Haren *Practica genocida en España: discursos, lógicas y memoriaetaLa Genealogía genocida del Franquismo* lanetan, haren ikuspuntuaren nondik norakoak modu argi eta zuzen batean ikus daitezke.

Miguez-ek, azpimarratzendu, biolentzia frankista oinarrizko bi dimentsioen bidez eman zela: alde batetik, praktika genozidaren bidez eta bestetik, praktika honen ukapenaren bidez, azkeneko honek, erregimen diktatorialaren izaera genozida hornitu egiten zuelarik (Miguez, 2012: 548.orr).

Egilearen arabera, genozidio kontzepturen erabilpena ez da kasu Espainiarri erreferentzia egiteko erabili, ez bada modu akritiko eta militante batean, erregimen frankistaren krimen salaketa indartzeko asmoarekin. Genozidioaren biolentziaren inguruan egindako ikerketa internazionalan, Espainiar kasuaren deskonexioa ematen da bertatik, honek, kontzeptu honen termino zientifikoen erabilpena ezjakintasuna handitzera ekarri egin du, azpimarratzen du Miguez-ek (Miguez, 2012: 548.orr).

Laneko galdera nagusietako bat, eta Miguez-ek bera plazaratuko ditu, zera izango da, zergatik praktika genozidaren kontzeptua baliagarria suerta daiteke historiagilearen ikuspuntutik Frankismoko biolentzia aztertzeko? Egilea galdera horri erantzun bat eman dio, izan ere, ikuspuntu genozida batetik biolentziaren praktika burutzea, haren jarreran inguruko definizio esentzionalista batean erortzea ekiditen duelako, modu honetan, burutatzaileen perfila eta hauen biktimena ekiditeko. Esentzionalismoa, talde bat ezaugarritzeko eta eragindako biolentzia mota definitzeko beharrezko bereizgarri objektiboen aurkikuntzan datza. Praktika genozidaren kasuan, oinarrizkoa izango dena ez da, biktima taldeko gizabanakoen identitate propioa edota beste batzuk ezarritako identitate, kasu honetan, haien borrarroak baizik (Miguez, 2012: 557.orr).

Espanian, biolentzia genozidak kolektibo osoen aurka aritu zen “gorria” izatearekin elkarlotzen zelako. Termino generikoen erabilpena, hala nola, “marxista” edo “erradikala”, denotazio genozidaren nahitasuna adierazten dute, biktimak multzokatzeko ikuskera batean, kolektibo komun bateko kideak bezala “*el lenguaje ayuda a ritualizar la tortura; presta una estructura, provee de una “razón”, una “explicación” , un “objetivo”*” (Miguez, 2012: 559.orr).

Genozidioa lortzeko beste mekanismo bat, biktimen disoluzio indibiduala izango da, modu honetan, familientzako dolua ukatuz. Garrantzi handia izango du, hildako pertsonen kopurua zenbatzeko edota bereizteko gaitasun eza, aldi berean debekaturik egongo da, hildakoari omenaldiak egitea. Frankismoaren bultzatzaileak, dolu adierazpenak jazarri zituzten eta oro har, biktimentzako egiten zen edozein oroipen zeremoniala ere (Miguez, 2012: 560.orr).

Beste elementu bat, daukan izaera genozida ukatzea diskurtso sozialaren sorkuntzaren bitartez izango da. Hitzaldi hau, argumentu ezberdinez hornituko da, baina gertatu diren ekintzetatik beti, eraldaketa aitzakiak erabiliko edo sortuko ditu, gudako testuinguruan sortutako aitzakia izango da. Espainiako praktika genozidaren ideia nagusia, biktimak ez zirela biztanle zibilak soilik izan sostengatu egiten du, baizik eta, garatzen ari zen gerra testuinguruan, etsaiaren ejertzitoko ordezkariak ziren erretagoardian. Hortaz “matxinada militarren” subjektutzat joko dira. Bultzatzaileek, saiatu egiten ziren biktimak zibil babesgabe bezala ez ikusten, hortik haratago, gizakiak bezala (Miguez, 2012: 561.orr).

Miguez-ek, 1977ko Amnistia legeak, krimen eta politika genoziden agerpenaren ukapena ahalbidetzen duen legea dela, adieraziko du. Espainiar demokraziak, amnistiaren legea bezalako legearen babespean eraiki zuen trantsizioa, zeinak estatuko instituzioen babespenaz enkargatu da. Miguez-en arabera, “*Se trata de una actitud que ha encontrado su correspondiente respaldo en la aprobación de la llamada “ley de la memoria histórica”*” (Miguez, 2012: 565-568.orr).

Memoria historikoa, memoria sentimentala eta ordaingarri sinbolikoa duen legea izango da. Bestalde, aipatutako legearen justifikazio intelektuala, deabruaren teoria babestu egiten du; krimenen egileen izena, beste krimen eta beste egile batzuen izena publizitatean datza. Miguez-en arabera, 1977ko amnistia lege honek, baliozkotu egiten du, horrelako aldebakarreko sarraski diskurtso bat, genozidio praktika bat, bi bandoen

arteko gatazka odoltsu bat bihurtuko da, biktimak nonahi daudelarik, guztiak izaera eta ondorio juridiko zein legalak berdinak dituztelarik (Miguez, 2012: 569-572.orr).

Gaur egungo erronka biolentzia estatal masiboaren kontzeptualizazioa zehaztean datza, haren dimentsio genozida, zeinak baimendu dezake itxita ez dagoen ikasketa arlo baten zaharberritzea. Beste alde batetik, ukapenezko diskurtsoaren sorkuntzaren baliozkotze prozesuan parte hartu zutenek, justifikazio pertsonaletatik eta politikoetatik ihes egitean datza. Denboraren igarotzea ukapena gauzatzen duten diskurtsoen lehen babeslea izango da, justizia egiteko asmoa Frankismoaren krimenekiko (Miguez, 2012: 573.orr).

A. Miguez-en arabera, Espainian 1936ko uztailleko altxamenduaren helburua boterea eskuratzea eta momentuan zegoen erregimen errepublikarrarekin amaitzea izan zen. Bestalde, beste jomuga ideologiko batzuk ere aurkituko ditugu, hala nola, boltxebikeen iraultza bat ekiditea, Espainiako batasuna defendatzea eta ezker-erdiko gobernu errepublikarrek ezarritako erreforma sozialak eta kulturalak aldatzea (Miguez, 2014: 21.orr).

Lehen eta bigarren mailako helburu hauetaz aparte, garrantzitsuagoa zen “muga” bat, gailentzen zen: Gizarteko talde baten ezabaketa, Espainiaren etsaia bezala identifikatzen zena. Talde bat zeinak, gehien bat, argudio negatiboengatik identifikatua izango zena: ez katolikoa, ez tradizionala, ez espainiarra. Kolpe estatuan, nahitasun genozida bat egon zela azpimarratzen du Miguez-ek, zeinak praktika bortitzen ondorioz eraginkor bihurtu zen, hau altxatutakoak errekurtsio estatalak izatean, okupatutako lurraldeetako indarren monopolioa eta gerra zibilaren garaipenaren ostean eman zen. Azkeneko garaipen honek, Espainiako lurralde osoan zehar praktika genozidak garitzea eta eraginkorrak izatea ahalbidetu zuen (Miguez, 2014: 21-22.orr).

Preston-en arabera, gutxienez, 300.000 gizon bizitza galdu egin zuten guda frentean, Espainiako osotasunean, 1939ko martxoaren amaieran, errebeldeen garaipenarekin, 20.000 errepublikar inguru exekutatuak izan ziren, askoz gehiago, kontzentrazio esparruetan eta espetxeetan bizitza galdu egin zuten goseak eta gaixotasunak eraginda, izan ere, bertako egoera oso latza baitzen. Beste askok, inolako irtenbiderik gabe erbesteratzearen aukera hautatu zuten eta aunitzek, Frantziako kontzentrazio esparruetan bizia galdu egin zuten (Preston, 2011: 29.orr).

Gerra zibilean zehar, afrikar ejertzitoaren ikara penintsulan zehar zabaldu egin zen etorkizuneko erregimen autoritarioaren instrumentu bezala. Matxinatutako militarren errepresioa, xehetasunez planifikatutako operazio izan zen, Emilio Mola, golpearean zuzendariaren hitzetan, zera zion; *“eliminar sin escrúpulos ni vacilación a todos los que no piensen como nosotros”*. Militar errebeldeen kasuan, ikara eta suntsidura programa, haien planaren ardatz nagusia zen, baita, hau burutzeko antolakuntza ere (Preston, 2011: 30. orr).

Hogei urte erabakigarri horietan zehar, milioika dokumentuen desagertzea eman zen, horien artean, partidu bakarrekoak, falangearenak, probintzietako poliziaren kuarteletakoak, espetxeetakoak eta erregimen frankistako autoritate nagusia, gobernu zibilarena, errepresioaren erregistro judizialen suntsipena ekarriz. Diktaduran zehar, krimen kasuen ezkutapena eman zen, honek terrorearen prebalentzia sustatzen zuen, aldi berean, posibleak izan ahal ziren testiguen eta ikerketen eragozpenak ekartzen zituen. Sarritan, dokumentazioak, modu misteriotsu batean desagertzen zen eta tokian tokiko funtzionarioek erregistro zibilak aztertzeke ahalmena ukatu egiten zuten (Preston, 2011: 36. orr).

Hildakoen heriotzak, errebeldeek *“garbiketa eta zigor operazioak”* bezala ezagunak eta izendatuak izan ziren, modu justifikatuan geratu egiten ziren bando gerraren ezarpenarekin. Bando honetako asmoa, golpe militarri erresistentzia erakutsi egiten zuten ooren exekuzioak legeztatzea zen (Preston, 2011: 37.orr).

Julio Arosteguiaren arabera, beste aldeko krimenak, antolaturiko krimenak izan zirela aditzera ematen du, hau da, aurretiazko prestakuntza bat izan zutela azpimarratuz. Espainian, Francisco Francoren erregimenean egondako ezinbesteko osagarria, diktadurako oinarri errepresiboak izan ziren, azken urteetako ikerketen bolumena izugarrien hazkundera sortu egin duena. Altxamenduak ez zuen odol gariorik aurreztu, ezta eraldaketarik ekarri. Haren asmo suntsitzailea *“anti Espainiarena”* ez du ezer usten bat- batekotasunerako, erregimenaren koordinazioa oso egokia izan zen, hau erabilitako instrumentuen efikaziaren ondorioz eman ziren, denbora zehar, akabera errepresio sistema bat sortuz (Arostegui (koord), 2012: 9-12.orr).

Arostegik Indalacio Prieto-ren interpretazioak erakartzen dizkigu, krimen hauen sortzailea zahar-berritzailea, salbatzailea eta berrantolatzailea zen sistema bat bezala aurkeztu egin zen, zeinetan ideologia eta eskatalogia, erakunde errepresiboak eta

exekuzioak plan global eta hierarkizatu bati loturik zegoen. Errepresio soziala, bortitza eta erabatekoa, altxamendua gauzatu zutenak martxan jarritakoa, aurreko asmoei egiten zion erreferentzia, erresistentzia errepublikarrak sumindu zuena, gatazkaren ondorengo urteetan zehar garatzen eta zehazte joan zena (Arostegui (koord), 2012: 13.orr).

Gerra zibilean, garaitzaileek eskuratu zuten boterea, ez zen haien ahaleginetatik legitimizatu, ezta haien proposamen justizialengatik, baizik eta, haien errepresioaren biolentziagatik. Diktadura frankistako datu erabakigarria, gerra zibil batean jaioa izen zela da, haren abiarazleek “askatasunetik” jaiio zela esan zuten, errepresioaren bidezko metodoen bitartez izandako laguntzaren gaitasunarekin eman zen (Arostegui (koord), 2012: 14.orr).

Gobernariak egindako errepresio prozesu sistematikoa, ez da soilik biktima kopuruaren arabera aztertuko, haien objektiboen entitatearengandik baizik, haien norabideen ugarikortasuna eta gatazkaren naturaren azpian dagoena. Ez da kalibratzen ezta gorai patzen haren garrantzia izendapen hunkigarriak gartzeagatik, hala nola, genozidio, holokausto, sarraski ... etab. Zapalketa, prozesu espezifikoak izango da, oso zaila izango dena azaltzen haren generoko jatorri ezberdinak ez badira aztertzen, biktimez gain. Jeneral Franco-k ezarritako sistema errepresiboak ez zuen hutsunerik uzi, ekintza sozialeko bihurtzeetan (Arostegui (Koord), 2012: 14-15.orr).

Amaitzeko, Xabier Irujo bere lanetan, Euskal Herrian, genozidio kulturala eman zela adierazten du (Irujo, 2016 a eta b). Frantsesa edo gaztelania eskoletan edo herrialde bateko bizitzako arlo publikoetan ezartzeak, ez zen soilik, behar kulturak bat, baizik eta, agindu bat, inperatibo bat, izan ere, hizkuntz nazionalen suntsipena, eskakizun moral eta behar politikoa bihurtu egin zen, aberriaren eginkizun bat zen.

Espainiar eta frantziar estatuek Euskal Herriko azken bi mendeetan arlo politikoan, ekonomikoan, sozialean eta kulturean abiarazi duten politika ongi egokitzen da Raphael Lemkinek 1944an emandako genozidioaren deskribapenarekin; boterean dagoen agentearen gizataldeko patroia nazionalaren inposizioa indarrez herri baten kultura eta ezaugarri nazionalen unibertso propioaren suntsiketa da genozidioa.

### 3.2. Genozidioaren aurka erabili ohi diren argudioak

Hala ere, Espainian genozidioa ez zela eman argudiatzen duten idazleak ere daude. Miguez-ek aipatzen duen bezala, teoriari aurre egiten dioten idazleak ere agertzen



dira, Espainian genozidioa eman zelakoaren aurkako argudioa edo kritikak azaltzen direlarik.

Zehazki, hiru argudio edo kritika nagusitzen dira. Lehenengoari dagokionez, 1948ko konbentzioan, talde politikoak genozidio kontzeptuaren definiziotik at utziko dute, ondorioz, Frankismoaren kasuari ezin izango litzake aplikatu kontzeptu hau, izan ere, biktimen jarrera funtsez politikoa baitzen. Bigarren argudioa zera izango da, Frankismoaren kasuan, ez dago asmo sarraskitzailerik, lehenagotik antolaturiko plan zehatzik ez dagolako eta ez dago talde sozial bat, etsaitzat hartuta, likidatzeko bokaziorik (Miguez, 2012: 549.orr).

Amaitzeko hirugarrena, genozidioa konplexua eta asko eztabaidatutako kontzeptua izango dela azpimarratzen dute. Egon badira gatazkatsuagoak ez diren gatazkak adierazteko alternatiba ezberdinak, hala nola, politizidioa, masakrea, biolentzia estatal edo kasu honetan, homogenizazio kulturala, azkeneko hau frankismoaren kasuan aplikatu ahal izango litzake, hainbesteko eztabaidarik sortu gabe (Miguez, 2012: 550.orr).

#### 4. Ondorioak eta gogoetak

Gerra Zibila eta Frankismoa gertatu zirenetik urte asko igaro diren arren, gaur egungo Espainiako gizartean, oraindik dirahuen gertakari mingarriak dira. Lan honen helburua Frankismoko zein Gerra Zibileko gertakarietara hurbiltzea izango da, historiografiaren barnean egindako iraganaren interpretapen berria kontuan hartuz.

Lanean zehar, ikusi izan den moduan, garai horietan zehar, erabilitako erramientak definituak azaltzen dira, hala nola, erregimenaren metodoak, baliabideak, prozedurak, eta abar. Hauei esker, garaiko gizartea zapaltzeko gaitasuna eskuratuz. Garai hauetan zehar erabilitako instrumentu hauek, autore batzuen arabera, genozidioaren kontzeptuaren erabilpena egitera eraman dute, aldi berean, korronte handi eta sendo bat ekarriz harekin. Korronte historiografiko hauen helburua ez da izango, izen soil bat jartzea, hau da, genozidioaren kontzeptuaren erabilpen soil bat egitera, izan ere, garaiko gertakariak definitzeko eta interpretatzeko izen ugaria erabili baitira, ere ez da biktimak kuantifikatzeko, izan ere, oso garrantzitsua den biktimen zenbaki jakitea hori ez da izango lanean zehar azaltzen diren korronte historiografikoen helburua. Helburua ere ez da izango, delitu horiek tipifikatzea, izan ere ez gara epaileak, baina historiagileak bezala, interpretatzeko gaitasuna izango da gako nagusia.

Puntu honetara iritsita, azpimarratu beharra dago, guzti honek eztabaida historiografiko zabala sortu egin da Espainia mailan gehien bat. Eztabaida honetan zehar, hainbat ideia nahastuko dira, hala nola: iraganaren ezagutza, salaketa eta memoria historikoaren beharra.

Interpretatzearen beharra, lanaren jomuga bakarra izan da, izan ere, historialarien artean beharrezko elementua izango da, hau da, kontzeptuak ondo mugatu, ezagutu eta erabili behar dira. Iraultza biolentzia dakarren unea da, baina hala ere, Espainian eman zen gatazkari (1936-75. urte bitartean) ez zaio iraultza, gatazka edo errebolta kontzeptuak aplikatu biolentzia egon arren, adibide bera erabil dezakegu faxismoa eta totalitarismo kontzeptuekin, ezaugarri batzuk partekatzen dituzten arren, ez dira berdinak izango. Kontzeptuen aukeraketan eta erabilpenetan, kontu handiz ibili beharko da, gaizkiulertuak ekiditeko, hau da onartuko nahasketarik eta baizik zehaztasun zientifikoaren beharra antzemango da. Hau ez da soilik mundu akademikoan antzemango baizik eta gizarteak berak zehaztasun zientifiko horren beharra eskatzen du.

Gerra Zibilean zein Frankismoan zehar, Espainiako populazioarenganako basakeri ugari egin ziren, lan osoan aipatu dugun moduan. Alde batetik, hildakoen omenezko dolu adierazpenak jazartuak izan ziren, Emilio Majuelo, “*Fondo Documental de la Memoria Histórica en Navarra*, webgunean, aditzera emango du, maite dugun lagun baten heriotza gainditzeko, doluaren prozesua ezinbestekoa izango dela, bakoitzaren min pertsonalaren gainditze psikologikoarentzat, baita eragina izango du hildakoaren eta bere familiaren gaineko pertzepzio sozialean ere. Honek biktimak, zibil soil moduan ez ikustea du helburu.

Aldi berean, garaian, hainbat elementuz edo instrumentuez baliatu zirela azpimarratu beharra dugu, hala nola; kontzentrazio esparruak, espetxeratzeak (gaixotasunak eta gosetea), torturak, garbiketa eta zigor operazioa, isun ekonomikoak, erbesteratzeak, terrorea, zapalketa, errepresio sistema, depurazioak ... guzti honek aditzera emango du, Gerra Zibilean eta Frankismoan, gaur egun onartua ez dagoen arren, garai hauek esaten dena baino askoz gehiago zirela, krimen guzti hauei, interpretazio berri bat ezarri behar zaie, garaiko krudelkeria ondo islatzen duena.

## Bibliografía eta webgrafia

- Arostegui, Julio (koord) (2012). *Franco: La Represión como sistema*. Flor de Viento, Bartzelona.
- Casanova, Julián (ed.) (2015). *40 años con Franco*. Crítica, Bartzelona.
- Cuesta, Josefina (dir.) (2009). *La depuración de funcionarios bajo la Dictadura Franquista (1916-1975)*. Fundación Francisco Largo Caballero, Madril.
- Eiroa, Matildea (2012). “Prácticas genocidas en guerra, represión sistemática y reeducación social en posguerra” en Julio Arostegui, Jorge Marco eta Gutmaro Gómez Bravo (koord). *De genocidios. Holocausto, Exterminios sobre los procesos represivos en España, durante la Guerra Civil y Dictadura*. *Hispania Nova. Revista de Historia Contemporánea*-ren lan monografikoa 10, 1-12 .orr.  
<http://hispanianova.rediris.es/10/dossier/10d014.pdf>
- Ipiña, Aritz (2016). *La depuración y represión Franquista en las empleadas y empleado del ayuntamiento de Bilbao (1936-1976)*. Bilboko Udala, Bilbo.
- Irujo, Xabier (2016a). “Genozidioaren ikuspegiaren abiapuntua Euskal Herriko historia aztertzeko eta interpretatzeko”. *Bidebarrieta: Revista de humanidades y ciencias sociales de Bilbao* 26, 6-16. orr.
- Irujo, Xabier (2016 b) “Genozidioa”. *Hermenes: pentsamendu eta historia aldizkaria* 52, 22-28.orr.
- Miguez, Antonio (2014). *La genealogía genocida del Franquismo. Violencia, Memoria e impunidad*. Abada, Madril.
- Miguez, Antonio (2012). “Práctica genocida en España: discursos, lógicas y memoria (1936-1977)”. *Historia Contemporánea* 45, 545-573.orr.
- Moreno, Francisco. (2008). *1936: El Genocidio Franquista en Córdoba*. Crítica, Bartzelona.
- Nash, Mary (2015): “Vencidas, represaliadas y resistentes: Las mujeres bajo el orden patriarcal Franquista” en Julián Casanova. *40 años con Franco*. Crítica, Bartzelona, 191-227.orr.
- Pérez, Jose Luis (2016). *Los Genocidios del siglo XX*. UOC (Universitat Oberta de Catalunya), Bartzelona..
- Preston, Paul. (2011). *El Holocausto Español*. Random House Mondadori. Bartzelona, <http://www.maalla.es/Libros/El%20Holocausto%20espanol.pdf>

- Rodero, J., Moreno, J. eta Castrillo, J. (eds) (2008). *Represión Franquista en el Frente Norte*. Eneida, Madril.
- Sanchez, Agustín (2015). “El cine Español durante el Franquismo”, en Julían Casanova. *40 años con Franco*. Critica, Bartzelona, 267-309.orr.
- Villavicencio, Claudio Humberto (2006). *El Crimen de Genocidio*. Txileko Unibertsitatea, Txile, Tesis Doktorala.